


BALIO PROPOSAMENA:

Gaur egun, lapurketen ingurua egoera larrian dago, gehienbat guztiok ezagun ditugun “pickpocket”en mailan, pertsona edo biktimaren poltsiko edo poltsatik hura ohartu gabe diru-zorrea edo objektu baliotsuak lapurtzean datzan lapurreta motan. Espaniako lapurketa tasak erabat gora egin du:



Gure enpresaren helburua ekitaldi desberdinetako **lapurketa tasak murriztea da**. Helburua lortu ahal izateko, hainbat langile bidaliko ditugu ekitaldi hauetara, pertsonak behatzeko eta lapurrak aurkitzen badira kanporatzeko.

Gure enpresa Espaina mailan kokatuko da, tamaina guztietako emanaldiei eskainiko diogu laguntza, gehienbat, pertsona multzo handiak elkartzen direnei, mota hauetakoak baitira lapurreta hauek jasaten dituzten ekitaldi gehienak.



Beraz, gure ideiak eta eskeiniko ditugun zerbitzuak lapurretak murrizteko balioko dute. Lana erraztea da gure enpresak sortzen duen balioa. Ekitaldi desberdinetako segurtasun gorputzei lapurketen aurrean lana errazten dizkigulako eta ekitaldi hauen segurtasuna eta konfiantza handitzen dugulako. Zerbitzua ekitaldi hauetan gertatzen diren lapurketei begira egoten diren pertsonetan datza, ozketa hauek kokatutakoan egilea kaleratzen.

Gure enpresaren balioa, balio kualitatiboa da, bezeroak zerbitzu jakin baten inguruan duen ikuspegiarekin lotuta dagoelako eta bezeroaren esperientzia bezalako faktoreak hartzen direlako kontutan gure zerbitzua erabiltzeko orduan.

Bestalde, gure enpresa arriskuen murrizketan eta lana erraztean bereizten da eta eskaintzen ditugun zerbitzu eta laguntza desberdinek beste enpresetatik bereizten digute gaituzte, hala nola, laguntza dedikatu personalizatua eskeiniko dugulako.

